



1. Irakurri txistea.
2. Lotu amaiera eta hasiera



HASIERAK

BUKAERAK

- Euskara ikasten:
- Ea Txomin! Nola esaten da puerta euskaraz?
- Atea.
- Oso ongi! Eta puerto?

— Ateo

- Aitatxo, nolakoak dira mozkorrak?
- Begira, alabatxo, ikusten dituzu hango bi zuhaitz haiek? Ba mozkorrek lau ikusten dituzte bi dauden tokian.

— Nik nahi dudana da nire heriotzean jendeak esatea: "Begira! Mugitzen ari da!"

— Baina, aitatxo, han zuhaitz bakarra dago eta.

Hiru lagun bildurik zeudela, batak esan zuen:

- Ni hiltzen naizenean jendeak ni oso langilea nintzela esatea gustatuko litzaidake.
 - Nik nahiko nukeena da jendeak esatea oso pertsona ona nintzela — zioen besteak.
- Azkenik hirugarrenak egin zuen berba:



Sergio Tejero-(r)en 'Txistea',
Creative Commons Aitortu-Ez Komertziala-Partekatu Berdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.
Iturria: Ormazabal. Esaera zaharrak eta txiste berriak. Elkar, 1998